**<u>EZ OHIKO OSOKO BILKURA</u> / <u>PLENO EXTRAORDINARIO</u>**

**<u>2019KO UZTAILAREN 1A</u> / <u>1 DE JULIO DE 2019</u>**

| BERTARATUAK / ASISTENTES | |
|---|---|
| **IDAZKARI NAGUSIA / SECRETARIO GENERAL**<br><br>D. Juan Agustín Villafranca Bellido jauna | **JARDUNEKO ALKATEA / ALCALDE EN FUNCIONES**<br><br>D. Alberto Albistegui Zamacola jauna PSE-EE (PSOE).<br><br>**ALKATEORDEAK / TENIENTES DE ALCALDE**<br><br>D. Jon Iraola Iriondo jauna PSE-EE (PSOE).<br>D. Francisco Javier Lejardi Galarraga jauna PSE-EE (PSOE).<br>D. Pedro Escribano Ruiz de la Torre jauna PSE-EE (PSOE).<br><br>**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES**<br><br>Dña. Idoya Sarasqueta Aramburu andrea PSE-EE (PSOE).<br>Dña Esther Velasco Juanes andrea PSE-EE (PSOE).<br>Dña. Patricia Arrizabalaga Larrañaga andrea PSE-EE (PSOE).<br>Dña. Ana Telleria Echeverria andrea PSE-EE (PSOE).<br>D. Josu Mendicute Rodríguez jauna (EIBARKO EAJ.PNV).<br>D. Alberto de la Hoz Gorriti jauna (EIBARKO EAJ.PNV).<br>Dña. Mª Mercedes Garate Larrañaga andrea (EIBARKO EAJ.PNV).<br>D. Jon Pérez Illana jauna (EIBARKO EAJ.PNV).<br>Dña. Mª Elena Ibañez Anucibay andrea (EIBARKO EAJ.PNV).<br>Dña. Amaia Albizu Llubia andrea (EIBARKO EAJ.PNV).<br>D. Gorka Errasti Bernedo jauna (EH BILDU).<br>Dña. Igone Lamarain Cobo andrea (EH BILDU).<br>D. José Ángel Gimare Escolar jauna (EH BILDU).<br>Dña. Miren Baranguan Yarza andrea (EH BILDU).<br>Dña. Ana Francisca Astigarraga Arrizabalaga andrea (EH BILDU).<br>Dña. Mª Isabel Fernández Pejenaute andrea (ELKARREKIN EIBAR-PODEMOS / ESKER ANITZA – IU/ EQUO BERDEAK). |

Eibarko hirian, 2019ko uztailaren 1ean, arratsaldeko seiak izanik, Udal Osoko bilkura egin zen ezohiko bileran, udaletxeko Batzar Aretoan, goian aipaturiko jaun-andreek osatua; Miguel de los Toyos Nazabal Alkate-Presidente jaunak justifikatu du bere absentzia.

En la Ciudad de Eibar, a 1 de julio de 2019 y siendo las dieciocho horas, se reunió en sesión extraordinaria el Pleno Municipal, en el Salón de Plenos de la Casa Consistorial, formado por los/as señores/as anteriormente menciona-dos/as, habiendo justificado su ausencia el Sr. Alcalde-Presidente D. Miguel de los Toyos Nazabal.

Iharduneko Alkatea, Alberto Albistegui Zamacola jauna da, lehen alkateordea.

Actúa como Alcalde en funciones el primer teniente alcalde, D. Alberto Albistegui Zamacola.

**Iharduneko Alkatea-Udalburu jaunak** bilerari hasiera eman dio eta aztertu da honako

El **Sr. Alcalde-Presidente en funciones** declara abierta la sesión y se procede a tratar el siguiente

**GAI-ZERRENDA**

**ORDEN DEL DÍA**

**1. Eratutako udal talde politikoen kontu-ematea.**

**1. Dación de cuentas de los grupos políticos municipales constituidos.**

**Idazkari jaunak** eratu diren udal taldeen berri eman du.

**El Sr. Secretario** da cuenta de los grupos municipales constituidos:

- PSE-EE (PSOE) Taldea.

Zinegotzi hauek osatua:

Miguel de los Toyos Nazabal jauna

Idoya Sarasqueta Aramburu andrea

Alberto Albistegui Zamacola jauna

Esther Velasco Juanes andrea

- Grupo PSE-EE (PSOE).

Integrado por:

D. Miguel de los Toyos Nazabal

Dña. Idoya Sarasqueta Aramburu

D. Alberto Albistegui Zamacola

Dña. Esther Velasco Juanes

| | |
|---|---|
| Francisco Javier Lejardi Galarraga jauna | D. Francisco Javier Lejardi Galarraga |
| Patricia Arrizabalaga Larrañaga andrea | Dña. Patricia Arrizabalaga Larrañaga |
| Jon Iraola Iriondo jauna | D. Jon Iraola Iriondo |
| Ana Telleria Echeverria andrea | Dña. Ana Telleria Echeverria |
| Pedro Escribano Ruiz de la Torre jauna | D. Pedro Escribano Ruiz de la Torre |
| Bozeramailea: Jon Iraola Iriondo jauna. | Portavoz: D. Jon Iraola Iriondo |
| Ordezko bozeramailea: Alberto Albistegui Zamacola | Portavoz suplente: D. Alberto Albistegui Zamacola |
| Koordinatzailea: Ana Telleria Echeverria | Coordinadora: Dña. Ana Telleria Echeverria |
| - EH Bildu Taldea. | - Grupo EH Bildu. |
| Zinegotzi hauek osatua: | Integrado por: |
| Gorka Errasti Bernedo jauna | D. Gorka Errasti Bernedo |
| Igone Lamarain Cobo andrea | Dña. Igone Lamarain Cobo |
| Miren Baranguan Yarza andrea | Dña. Miren Baranguan Yarza |
| Jose Angel Gimare Escolar jauna | D. Jose Angel Gimare Escolar |
| Ana Francisca Astigarraga Arrizabalaga andrea | Dña. Ana Francisca Astigarraga Arrizabalaga |
| Bozeramailea: Gorka Errasti Bernedo jauna | Portavoz: D. Gorka Errasti Bernedo |
| Ordezko bozeramailea: Igone Lamarain Cobo andrea | Portavoz suplente: Dña. Igone Lamarain Cobo |
| Koordinatzailea: Gorka Errasti Bernedo jauna | Coordinador: D. Gorka Errasti Bernedo |

| | |
|---|---|
| - Eibarko EAJ- PNV Taldea. | - Grupo Eibarko EAJ- PNV. |
| Zinegotzi hauek osatua: | Integrado por: |
| Josu Mendicute Rodríguez jauna | D. Josu Mendicute Rodríguez |
| Alberto de la Hoz Gorriti jauna | D. Alberto de la Hoz Gorriti |
| Maria Mercedes Garate Larrañaga andrea | Dña. Maria Mercedes Garate Larrañaga |
| Maria Elena Ibañez Anuncibay andrea | Dña. Maria Elena Ibañez Anuncibay |
| Jon Pérez Illana jauna | D. Jon Pérez Illana |
| Amaia Albizu Llubia andrea | Dña. Amaia Albizu Llubia |
| Bozeramailea: Josu Mendicute Rodríguez jauna | Portavoz: D. Josu Mendicute Rodríguez |
| Ordezko bozeramailea: Maria Mercedes Garate Larrañaga andrea | Portavoz suplente: Dña. Maria Mercedes Garate Larrañaga |
| Koordinatzailea: Maria Mercedes Garate Larrañaga andrea | Coordinadora: Maria Mercedes Garate Larrañaga andrea |
| - Elkarrekin Eibar-Podemos/Ezker Anitza-IU/Equo Berdeak Taldea. | - Grupo Elkarrekin Eibar-Podemos/Ezker Anitza-IU/Equo Berdeak. |
| Zinegotzi honek osatua: | Integrado por: |
| Maria Isabel Fernández Pejenaute andrea | Dña. Maria Isabel Fernández Pejenaute |
| Bozeramailea: Maria Isabel Fernández Pejenaute andrea | Portavoz: Dña. Maria Isabel Fernández Pejenaute |
| Ordezko bozeramailea: Maria Isabel Fernández Pejenaute andrea | Portavoz suplente: Dña. Maria Isabel Fernández Pejenaute |

Koordinatzailea: Maria Isabel Fernández Pejenaute andrea.

Coordinador: Dña. Maria Isabel Fernández Pejenaute.

Udal Batzarra jakinaren gainean geratu da.

El Pleno se da por enterado.

**2. Alkatetzaren ebazpenen kontu-ematea, Tokiko Gobernu Batzarraren eraketari eta osaketari, Alkateordeen izendapenari eta Ordezkaritza bereziei buruzkoa.**

**2. Dación de cuentas de Resoluciones de Alcaldía referentes a formación y composición de Junta de Gobierno Local, nombramiento de Tenientes de Alcalde y Delegaciones especiales.**

**Idazkari jaunak** Alkatetzaren 2019ko ekainaren 21eko Ebazpena irakurri du, Tokiko Gobernu Batzarraren eraketari eta osaketari buruzkoa.

El **Sr. Secretario** da lectura a la Resolución de Alcaldía, de 21 de junio de 2019, relativa a la formación y composición de la Junta de Gobierno Local:

**"ALKATETZAREN EBAZPENA**

**"RESOLUCIÓN DE ALCALDIA**

Udal berria eratuta, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 21.3 artikuluak eta Toki-erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide juridikoari buruzko Erregelamenduaren 52. artikuluak diotenaren arabera,

Constituido el nuevo Ayuntamiento y en aplicación de las atribuciones que me son deparadas por el artículo 21.3 de la Ley Reguladora de las Bases del Régimen Local y 52 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales,

HAUXE EBATZI DUT:

DISPONGO:

AURRENA: Honako zinegotzi hauek izendatzea Tokiko Gobernu Batzarreko kide:

Alberto Albistegui Zamacola

Jon Iraola Iriondo

Francisco Javier Lejardi Galarraga

Pedro Escribano Ruiz de la Torre

PRIMERO: Nombrar como miembros de la Junta de Gobierno Local a los siguientes concejales/as.

Alberto Albistegui Zamacola

Jon Iraola Iriondo

Francisco Javier Lejardi Galarraga

Pedro Escribano Ruiz de la Torre

BIGARRENA: Tokiko Gobernu Batzarrari ondorengo ahalmen hauek ordezkatzea, baita Gobernu Batzarrak har ditzakeen erabakien kontra sar litezkeen berrazterketa-errekurtsoen ebazpena emateko ahalmena ere:

1.- Udalaren zerbitzuak eta obrak zuzentzea, ikuskatzea eta bultzatzea; udal zerbitzuen lizentziak edo baimenak ematea, edo, Udalak arautzekoak izan baina Udalbatzaren eskumenekoak ez direnak arautzea eta entitateei —ekitaldiak antolatzeko— zerbitzuak eskaintzea.

2.- Onartutako Aurrekontuaren kudeaketa ekonomikoa garatzea.

3.- Gastuak egiteko erabakiak hartzea gastuok 18.000 eurotik gorakoak direnean, administrazio-kontratazio espedienteei buruzkoak ez direnean, betiere.

4.- Ordainketa-luzapenak ematea.

SEGUNDO: Delegar en la referida Junta de Gobierno Local las siguientes atribuciones así como la resolución de los recursos de reposición contra los acuerdos que la misma adopte en virtud de las atribuciones delegadas:

1.- Dirigir, inspeccionar e impulsar los servicios y obras municipales, así como concesión de autorizaciones y licencias de los servicios municipales o de regulación municipal que no sean competencia del Pleno Municipal y las prestaciones de servicios a entidades para organización actos.

2.- Desarrollo de la gestión económica del Presupuesto aprobado.

3.- Disposición de gastos cuando su cuantía exceda de 18.000 € y no sean relativos a expedientes de contratación administrativa.

4.- Aplazamientos de pago.

5.- Udalbatzaren eskumenekoak ez diren dirulaguntzak eta laguntzak ematea.

5.- Subvenciones y ayudas que no sean de competencia del Pleno Municipal.

6.- Udalbatzari ez dagozkion ondare-erantzukizuneko erreklamazioak ebaztea.

6.- Reclamaciones de responsabilidad patrimonial que no sean competencia de Pleno Municipal.

7.- Enplegu-eskaintza langile-zerrendaren arabera onartzea.

7.- Aprobación de la oferta empleo conforme a plantilla.

8.- Langileak aukeratzeko oinarriak onartzea.

8.- Aprobación de las bases de selección de personal.

9.- Langileak izendatzea eta lan-kontratuak egitea.

9.- Nombramiento de personal y contrataciones laborales.

10.- Langile-zerrendan edo Lanpostuen Zerrendan aldaketarik ez badakarte, norbanakoak lanpostuetara atxikitzea.

10.- Adscripciones individuales a puestos si no implican modificación de plantilla o de la relación de Puestos de Trabajo.

11.- Finkoak ez diren eta aldian aldikoak ez diren ordainsari osagarriak finkatzea.

11.- Fijación de retribuciones complementarias no fijas ni periódicas.

12.- Lan-baldintzak betetzea: lizentziak, soldata-aurrerapenak, eszedentziak, oporraldiak edo ikastaroak.

12.- Cumplimiento de las condiciones de trabajo tales como licencias, anticipos, excedencias, vacaciones o cursos.

13.- Bateragarritasun-aitorpena egitea.

13.- Reconocimiento de compatibilidades.

14.- Langileei zigorrak edo zehapenak ezartzea, kalera botatzea eta zerbitzutik kentzea izan ezik.

14.- La imposición de sanciones personal, salvo despido y separación de servicio.

15.- Udalbatzak onestekoak ez diren planeamendurako tresnak onartzea.

15.- Aprobación instrumentos planeamiento que no corresponden al Pleno Municipal.

16.- Hirigintza-kudeaketarako eta urbanizazio-proiektuetarako tresnak onartzea.

16.- Aprobación instrumentos de gestión urbanística y proyectos urbanización.

17.- Aurri-egoeraren deklarazioak egitea, berehalako aurri-deklarazioak izan ezik.

17.- Declaración de ruina, excepto declaración de ruina inminente.

18.- Obra eta hirigintza lizentziak ematea, obra txikien jakinarazpena eta izapide laburreko lizentzia izeneko prozedurak izan ezik.

18.- Otorgamiento de licencias de obras y urbanísticas, excepto las objeto de los procedimientos denominados comunicado obra menor y licencia de trámite abreviado.

19.- 18.000 eurotik gorako ondasun higiezinak erostea Udalbatzaren eskumenekoak ez badira.

19.- Adquisición de bienes inmuebles superiores a 18.000 € y que no sean competencia de Pleno Municipal.

20.- Aurrekontuan aurreikusitako higiezinak besterenganatzea, betiere Udalbatzaren eskumenekoak ez badira.

20.- Enajenación de inmuebles prevista en el Presupuesto y que no sean competencia del Pleno Municipal.

21.- Altzariak besterenganatzea, balio historikokoak edo artistikokoak izan ezik.

21.- Enajenación de muebles salvo los declarados de valor histórico o artístico.

22.- Udalbatzaren eskumenekoak ez diren doako lokal lagapenak egitea.

22.- Concesiones gratuitas de locales que no sean competencia del Pleno Municipal.

HIRUGARRENA: Erregelamendu Organikoan Tokiko Gobernu Batzarraren bilkurak astean behin izango direla finkatuta dagoenez, erabaki dut Tokiko Gobernu Batzarrak ostiralean egitea, eguerdiko hamabietan; jaieguna balitz, hurrengo astearen lehenengo lanegunean egingo litzateke.

TERCERO: Fijada en el Reglamento Orgánico una periodicidad semanal de celebración de sesiones de Junta de Gobierno Local, determino los viernes a las doce horas la fecha y hora de celebración de sesiones de Junta de Gobierno Local, pasando al primer día hábil de la semana siguiente caso de coincidir en festivo.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko uztailaren 5ean egingo du aurreneko bilkura.

La primera sesión que celebre la indicada Junta de Gobierno Local, será el día 5 de julio de 2019.

LAUGARRENA: uztailaren 5etik aurrera eskuratuko ditu Tokiko Gobernu Batzarrak bere esku uzten zaizkion

CUARTO: La delegación de atribuciones en Junta de Gobierno Local tendrá efectos desde el 5 de julio hasta su modificación o

ahalmenak, erabaki hau aldatu edo atzera bota arte; Tokiko Gobernu Batzarrak ahalmen hauen ondorioz har ditzakeen erabakiak organo delegatzaile honen beronen Ebazpenen balio bera izango dute.

revocación, y los acuerdos que adopte la Junta de Gobierno Local en virtud de estas atribuciones tendrán el mismo valor que las Resoluciones de este órgano delegante.

BOSGARRENA: Obra txikien jakinarazpena eta izapide laburreko lizentzia izeneko prozeduren hirigintza-lizentzien ebazpenak ematea eta egikaritze-aginduak ematea, Jon Iraola Iriondo jaunaren esku uzten ditut; baita ebazpen horien kontra sar litezkeen berrazterketa-errekurtsoen inguruko ebazpenak ematea ere.

QUINTO: Delegar la atribución de resolución de las licencias urbanísticas objeto de los procedimientos denominados comunicado de obra menor y licencia de trámite abreviado así como órdenes de ejecución en D. Jon Iraola Iriondo, así como la resolución de los recursos de reposición que contra dichas resoluciones pudieran interponerse.

Eskuordetze honek 2019ko ekainaren 21etik aurrerako ondorioak izango ditu.

Esta delegación tendrá efectos desde el 21 de junio del presente.

SEIGARRENA: jaso beza erabaki honek legeak eskatutako argitalpena."

SEXTO: Dar la publicidad exigida legalmente a la presente Resolución."

Udal Batzarra jakinaren gainean geratu da.

El Pleno se da por enterado.

Halaber, **Idazkari jaunak** Alkatetzaren 2019ko ekainaren 21eko Ebazpena irakurri du, Alkateordeak izendatzekoa.

Asimismo, el **Sr. Secretario** procede a la lectura de la Resolución de Alcaldía, de 21 de junio de 2019, mediante la que se procede al nombramiento de Tenientes de Alcalde:

**“ALKATETZAREN EBAZPENA**

Udal berria eratu denez, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 23.3 artikuluak eta Toki-erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide juridikoari buruzko Erregelamenduaren 47. artikuluak diotenaren arabera, HAUXE ERABAKI DUT:

Ondoren aipatuko ditudan jaun hauek alkateorde izendatzea aipatzen ditudan eran eta hurrenez hurren, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 23.3 artikuluak eta Toki-erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide juridikoari buruzko Erregelamenduaren 47. artikuluak dakartzaten ondorioetarako,

Alberto Albistegui Zamakola

Jon Iraola Iriondo

Francisco Javier Lejardi Galarraga

Pedro Escribano Ruiz de la Torre

Jaso beza erabaki honek legeak eskatutako argitarapena.”

Udal Batzarra jakinaren gainean geratu da.

**“RESOLUCIÓN DE ALCALDÍA**

Constituido el nuevo Ayuntamiento y en aplicación de las atribuciones que me son deparadas por el artículo 23.3 de la Ley Reguladora de las Bases del Régimen Local y 47 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, DISPONGO:

NOMBRAR a los siguientes señores/as y por el orden de enunciación, Tenientes de Alcalde, a los efectos del artículo 23.3 de la Ley Reguladora de las Bases del Régimen Local y 47 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales:

Alberto Albistegui Zamakola

Jon Iraola Iriondo

Francisco Javier Lejardi Galarraga

Pedro Escribano Ruiz de la Torre

Dese la publicidad exigida legalmente a la presente Resolución.”

El Pleno se da por enterado.

Azkenik, **Idazkari jaunak** Alkatetzaren 2019ko ekainaren 22ko Ebazpena irakurri du, zeinaren bidez ordezkaritza berezi batzuk egiten diren.

**“ALKATETZAREN EBAZPENA**

Udal berria eratu denez, Toki-erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide juridikoari buruzko Erregelamenduaren 43.5b) artikuluak dioenari jarraituz eta bertan azaltzen diren ondorioetarako,

Ordezkaritza berezi hauek ezartzea ERABAKI DUT:

- Alberto Albistegui jaunari Kirol Ordezkaritza ematea.

- Francisco Javier Lejardi Galarraga jaunari Baserri-auzoen Ordezkaritza ematea.

- Ana Telleria Echeverria andreari Gobernua Zabalik Ordezkaritza ematea.

Jaso beza erabaki honek legeak eskatutako argitarapena.”

Por último, el **Sr. Secretario** da lectura a la Resolución de Alcaldía, de 22 de junio de 2019, a través de la cual se realizan una serie de delegaciones especiales:

**“RESOLUCIÓN DE ALCALDIA**

Constituido el nuevo Ayuntamiento y en aplicación del artículo 43.5 b) del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, y con los efectos recogidos en el mismo,

DISPONGO las siguientes Delegaciones especiales:

- En Alberto Albistegui Zamacola la delegación de Deportes.

- En Francisco Javier Lejardi Galarraga la delegación de Barrios Rurales.

- En Ana Telleria Echeverria la delegación de Gobierno Abierto.

Dese la publicidad exigida legalmente a la presente Resolución.”

Udal Batzarra jakinaren gainean geratu da.

El Pleno se da por enterado.

**Lamarain Cobo andreak** gogorarazi du aurreko agintaldian azpimarratu zela zeharkako politika bat egin beharra zegoela, eta, bereziki, politika feminista bati ekin behar zitzaiola. Horren harira, egin dira hainbat saiakera, hala nola teknikarien eta Udalbatzako kideen formazioa, xedea izanik udal aurrekontu batzuk egitea ikuspuntu feminista kontuan hartuz. Baina ikusita gai-zerrendaren puntu honetan aurkeztutako Alkatetzaren Ebazpenak, bere taldeari harrigarria egin zaio Tokiko Gobernu Batzarra bakarrik gizonez osatua egotea eta Alkateorde guztiak gizonak izatea. Gertakari hau harrigarri egiten da non eta politika feminista bat egin nahi duen gobernu-talde batean; izan ere, politika feminista bat aurrera eramateak ez dakar soilik planteamendu teoriko bat, beharrezkoa da, baita, praktikara eramatea erabakien bidez, eta, horretarako, ateak zabaldu behar zaizkio emakumearen parte-hartzeari.

Beraz, Tokiko Gobernu Batzarrak azkenean izan dezakeen osaketa alde batera utzita, aurkeztutako planteamenduak harridurarako arrazoiak ematen ditu, baina, batez ere, kezka handia sortzen du; hortik galdetzea zergatik ez dagoen emakumerik udal

La **Sra. Lamarain Cobo** recuerda que a lo largo del pasado mandato se hizo hincapié en la necesidad de llevar a cabo una política transversal, pero sobre todo, poner en práctica una política feminista. En este sentido, se han realizado esfuerzos, tales como la formación del personal técnico y de miembros de la Corporación con el objetivo de elaborar unos presupuestos municipales desde un punto de vista feminista. Pero, a la vista de las Resoluciones de Alcaldía presentadas en este punto del orden del día, a su grupo le ha sorprendido que la Junta de Gobierno Local esté integrada únicamente por hombres y que todos los Tenientes de Alcalde sean hombres. Así, este hecho resulta sorprendente en un equipo de gobierno que desea desarrollar una política feminista; una política feminista no representa únicamente un planteamiento teórico, sino que es necesario llevarla a la práctica mediante la toma de decisiones, para lo cual es necesario abrir las puestas a la participación de la mujer.

Por tanto, con independencia de la composición final que pueda tener la Junta de Gobierno Local, la propuesta planteada presenta motivos para la sorpresa, pero, sobre todo genera un profundo malestar, lo que le lleva a preguntarse el motivo de la ausencia de mujeres entre los

gobernu-organo honen kideen artean, eta zehatzago, zergatik ez dagoen bertan Berdintasunaren Batzorde Aholkulariaren Lehendakari andrea, edo zer arrazoi dagoen emakume bat Alkateorde ez izateko.

miembros de este órgano de gobierno municipal, y más en concreto de la Presidenta de Comisión Asesora de Igualdad, o las razones para que una mujer no sea Teniente de Alcalde.

Hitz batean, berriz ere azpimarratu du EH Bildu taldean sortu den kezka eta espero du egoera hau zuzentzeko behar diren neurriak hartzea, ez dadin politika egiteko moduaren eredu izan hurrengo lau urteotan.

En definitiva, reitera el malestar del grupo EH Bildu y desea que en breve se adopten las medidas precisas para corregir esta situación, de modo y manera que no represente un ejemplo de la forma de hacer política en los próximos cuatro años.

**Fernández Pejenaute andreak** ere uste du izendapen horiek onartezinak direla kideen erdiak emakumeak diren Udalbatza batean. Haren iritziz, PSE-EE (PSOE) udal taldeak gizonak bezain baliotsuak diren emakumeak ditu eginkizun horiek betetzeko eta azpimarratu du talde horren bederatzi kideetatik bost gizonek osatzen dutela Tokiko Gobernu Batzarra. Horren haritik, esan du feminismoa ez dela defendatzen martxoaren 14an bandera more bat jarriz, eguneroko erabakiak hartuz baizik. Horregatik guztiagatik, eskatu du Alkate-Udalburu jaunak bere okerra zuzentzea eta proposamen berri bat egitea, eibartarren erdiak kontuan hartuz.

La **Sra. Fernández Pejenaute** también considera inaceptables estos nombramientos en un Pleno donde más de la mitad de sus integrantes son mujeres. En su opinión, el grupo municipal del PSE-EE (PSOE) cuenta con mujeres tan válidas como los hombres para realizar estas labores y resalta que, de los nueve integrantes de ese grupo, los cinco hombres integran la Junta de Gobierno Local. En este sentido, afirma que el feminismo no se practica colocando una bandera morada cada 14 de marzo sino en las decisiones del día a día. Por todo ello, solicita que el Sr. Alcalde-Presidente rectifique y realice una nueva propuesta en la que se tenga en cuenta a la mitad de la población eibarresa.

**Mendicute Rodríguez jaunak** adierazi du aurreko agintaldian ere bere

El **Sr. Mendicute Rodríguez** indica que, ya en el pasado mandato a su grupo

taldeari harrigarri egin zitzaiola Tokiko Gobernu Batzarraren partaideen % 85 gizonak izatea, eta emakume bakar bat izatea bertako kide. Eta oraingoan ez dago emakumerik organo horretan. Horren harira, gogorarazi du aspaldi onartu zuela Eusko Jaurlaritzak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea, eta haren 3. artikuluan hauxe esaten da hitzez hitz:

*"7. Ordezkaritza orekatua.*

*Euskal aginte publikoek neurri egokiak hartu behar dituzte emakumeen eta gizonen presentzia orekatua lor dadin erabakiak hartzeko eremu guztietan.*

*Lege honen ondoreetarako, pertsona anitzeko administrazio-organoetan ordezkaritza orekatutzat, hain zuzen, sexu biek %40ko ordezkaritza, gutxienez, dutenean joko da."*

Ondorioz, Eibarko Udala lege-aurreikuspen horretatik kanpo kokatzen da.

Bere iritziz, ez da unea berdintasunaren aldeko aldarrikapen edo itzulinguruetarako; benetako erabakiak hartzeko unea da, zeren eta, adierazi bezala, harrigarria da 2019. urtean Tokiko Gobernu Batzarra bakar-bakarrik gizonez osatuta egotea, are gehiago, kontuan hartzen bada PSE-EE (PSOE) udal taldea 9 pertsonak osatzen dutela, eta egoera pertsonal puntualak alde

le resultó sorprendente que el 85 % de los integrantes de la Junta de Gobierno Local fueran hombres, con una sola mujer como miembro de la misma. Pero a día de hoy ninguna mujer se integra en dicho órgano. A este respecto, recuerda que ya hace un tiempo que el Parlamento Vasco aprobó la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres, en cuyo artículo 3 se dice literalmente:

*"7.- Representación equilibrada.*

*Los poderes públicos vascos han de adoptar las medidas oportunas para lograr una presencia equilibrada de mujeres y hombres en los distintos ámbitos de toma de decisiones.*

*A los efectos de esta ley, se considera que existe una representación equilibrada en los órganos administrativos pluripersonales cuando los dos sexos están representados al menos al 40%."*

En consecuencia, el Ayuntamiento de Eibar se sitúa al margen de esta previsión legal.

En su opinión, ya no es momento de más reivindicaciones en favor de la igualdad ni de florituras y sí de adoptar verdaderas decisiones, porque, tal y como se ha apuntado, resulta sorprendente que en el año 2019 la Junta de Gobierno Local esté conformada únicamente por hombres, máxime si se tiene en cuenta que el grupo municipal del PSE-EE (PSOE) lo integran 9 personas y, al

batera utzita, ez du uste taldeko onenak hautatzeko irizpidea hartu denik.

margen de situaciones personales puntuales, no cree que se haya seguido el criterio de elegir a los mejores del equipo.

Laburbilduz, eskatzen dio Alkate-Udalburu jaunari eta talde sozialistari erabaki hori berrikusteko eta legediak esaten duenera egokitzeko.

En síntesis, solicita al Sr. Alcalde-Presidente y al grupo socialista que revisen esta decisión y la adapten a lo que dice la legislación.

**Iraola Iriondo jaunak** erantzun du behin-behineko erabaki bat dela, eta egingo direla beharrezko ikusten diren aldaketak, Tokiko Gobernu Batzarrari dagokionez. Bere iritziz, gai honi buruzko eztabaida ezin da izan gobernu-talde sozialistaren emakumeen baliotasuna; izan ere, gizonak bezain baliotsuak dira, edo gehiago; kontua da PSE-EE (PSOE) udal taldeko kide diren emakumeek beren lanbideak garatzearen aldeko hautua egin dutela eta beren denboraren zati bat Udalari eskaintzea. Gainera, kontuan hartu behar da organo horretan parte hartzeko komeni dela dedikazio esklusiboa izatea.

El **Sr. Iraola Iriondo** responde que se trata de una decisión provisional y que ya se articularán las modificaciones que se consideren necesarias en lo que a la composición de la Junta de Gobierno Local se refiere. A su entender, el debate sobre esta cuestión no debe centrarse en torno a la validez de las mujeres del equipo de gobierno socialista, puesto que son igual de válidas o más que los hombres; se trata simplemente de que las integrantes del grupo municipal del PSE-EE (PSOE) han optado por desempeñar sus profesiones y dedicar parte de su tiempo al Ayuntamiento. Además hay que tener en cuenta que la pertenencia a este órgano de gobierno aconseja disponer de dedicación exclusiva.

Bestalde, ez dator bat berdintasun-politiken garapena zalantzan jartzen ari den ideiarekin; izan ere, gobernu-taldeak erabat defendatu ahal ditu politika horiek, PSE-EE (PSOE) udal taldeko zinegotzien inguruabar profesionalak alde batera lagata. Laburbilduz, esan du gai konkretu baten aurrean gaudela, eta neurri gabekoak

Por otra parte, no comparte la idea de que se esté cuestionando el desarrollo de las políticas de igualdad, ya que el equipo de gobierno puede defenderlas totalmente con independencia de las circunstancias profesionales de las Concejalas del grupo municipal del PSE-EE (PSOE). En definitiva, estamos ante una cuestión concreta y considera

iruditzen zaizkiola gobernu-taldeak aurrera daramatzan berdintasun-politiken inguruko kritikak.

desproporcionadas las críticas sobre las políticas de igualdad que lleva a cabo el equipo de gobierno.

**Lamarain Cobo andreak** uste du kezkagarria dela, halaber, kontu honetan behin-behinekotasuna jartzea aitzakiatzat, ez baita eztabaidatzen ari Batzorde Aholkulari baten osaketa, baizik eta udal gobernua eta alkateorde izendatutako pertsonak. Bere iritziz, politika feministaren zutabeetako bat da bidezko neurriak hartzea emakumearen parte-hartzea bermatzeko, egoera pertsonalek eta lan-kontuek merezi duten errespetua alde batera utzita . Eta, hain zuzen, neurri horiek dira ikusten ez dituenak Alkatetzaren erabakian, eta horrek behartzen ditu beren haserrea adieraztera. Aitortu du bere taldearen asmoa ez dela gatazka bat sortzea kontu honetan, baizik eta kexu bat adieraztea; eta uste du gaitasuna egon beharko litzatekeela PSE-EE (PSOE) udal taldeko emakume zinegotzien parte-hartzea bermatzeko mekanismoak ezartzeko, baldin eta gobernu-taldeak benetan nahi badu bere politikak morez koloreztatu, ezen, bestela, ez ginateke diskurtso hutsal baten aurrean baino egongo.

La **Sra. Lamarain Cobo** considera igualmente preocupante que se esgrima como excusa la provisionalidad en este asunto, puesto que no se está discutiendo sobre la composición de una Comisión Asesora, sino sobre el gobierno municipal y las personas designadas como Tenientes de Alcalde. En su opinión, uno de los pilares de la política feminista es adoptar las medidas precisas que garanticen la participación de la mujer, con independencia del respeto que le merecen las diferentes situaciones personales y laborales. Y, precisamente, son esas medidas las que no aprecia en la decisión de la Alcaldía, lo que les obliga a mostrar su malestar. Confiesa que la intención de su grupo no es generar un conflicto con este asunto, sino expresar esa queja y considera que se debería ser capaz de articular los mecanismos que garantizasen la participación de las Concejalas del grupo municipal del PSE-EE (PSOE) si de verdad el equipo de gobierno quiere teñir de morado sus políticas, ya que de lo contrario no estaríamos más que ante un simple discurso.

**Mendicute Rodríguez jaunak** zehaztu dio PSE-EE (PSOE) udal

El **Sr. Mendicute Rodríguez** puntualiza al portavoz del grupo municipal

taldearen bozeramaleari ezin duela esan "gobernu sozialistaren taldeko emakumeak", izan ere, kritikatzen dena da gobernu-taldea gizonez osatua egotea erabat; izatekotan, "udal talde sozialistaren emakumeak" esan beharko luke. Zentzu horretan, aipatu du duela hilabete batzuk Gobernuko Presidenteak esan zuela “gobernu igoalitario eta erregeneratzaile” bat eratu zuela; ondorioz, Eibarren igoalitarioa ez den udal gobernu eratu da, bigarren ezaugarri hori baloratzera sartu barik. Hartara, azalpen pila bat eman daitezke, baina errealitatea da Tokiko Gobernu Batzarraren parte izateak ez duela derrigorrez esan nahi udal erantzukizunak dedikazio esklusiboan egin behar direnik, bateragarri izan baitaitezke lan-munduarekin. Era berean, posible da dedikazio hori izatea, gobernu-organoaren parte izan barik. Hitz batean, kontua da udal gobernuak ez dituela sartu emakume ordezkariak eta argitu du bere taldearen esku egon balitz, ez zela horrela izango.

del PSE-EE (PSOE) que no puede referirse a “las mujeres del equipo de gobierno socialista” puesto que lo que se critica es que está integrado en su totalidad por hombres; en todo caso debería hablar de “las mujeres del grupo municipal socialista”. En este sentido, menciona que hace unos meses el Presidente del Gobierno afirmó que había formado un “gobierno igualitario y regenerador”; en consecuencia, en Eibar se ha constituido un gobierno municipal no igualitario, sin entrar a valorar esa segunda característica. Así pues, se pueden facilitar múltiples explicaciones, pero la realidad es que formar parte de la Junta de Gobierno Local no implica necesariamente ejercer las responsabilidades municipales en régimen de dedicación exclusiva, ya que es posible compatibilizarlas con la vida laboral. Del mismo modo, resulta posible contar con esa dedicación sin formar parte del órgano de gobierno. En definitiva, lo cierto es que el gobierno municipal no ha integrado a representantes femeninas y aclara que si de su grupo hubiera dependido no habría sido así.

**Iraola Iriondo jaunak** erantzun du eman dezakeen azalpen bat bera ere ez litzatekeela nahikoa indartsu izango oposizio-taldeentzat, baina berriz ere aipatu du bere taldeko zinegotzi emakumeen egoera pertsonal eta profesionalak direla gobernu taldean ez

El **Sr. Iraola Iriondo** responde que ninguna de las explicaciones que pudiera proporcionar serían lo suficientemente contundentes para los grupos de la oposición, pero insiste en referirse a las circunstancias personales y profesionales de las concejalas de su grupo ya que se

egotearen arrazoi, eta ez direla motiboak ezagutzen. Horren haritik, aitortu du ez dela ezinbesteko baldintza Tokiko Gobernu Batzarraren parte izateko dedikazio esklusiboa izatea, baina beharrezkoa dela udal eginkizunetan dedikazio gutxieneko bat izatea. Testuinguru horretan, azpimarratu nahi du Eibarko Udaleko gobernu-taldea PSE-EE (PSOE) udal taldeko bederatzi emakumeek eta gizonek osatzen dutela; izan ere, haietako bakoitzak erantzukizun jakin batzuk ditu eta erantzukizun horien arabera, hain zuzen, eratu da Tokiko Gobernu Batzarra.

Dena den, harrigarri egiten zaio Eusko Alderdi Jeltzalearen zerrendako bigarrena gizon bat izatea, PSE-EE (PSOE) taldeak “zerrenda-kremailera” bat aurkeztu baitzuen, edo EH Bildu udal taldearen koordinatzailea gizona izatea. Nolanahi ere, eztabaida honek atentzioa eman dezake, baina inguruabar horien jakitun egon behar da edozein kritika egin aurretik.

Osoko Bilkura jakinaren gainean geratu da.

**3. Alkatetzaren proposamena, Udal Osoaren ohiko bilkurak noiz egin erabakitzeko.**

desconocen sus motivaciones. A este respecto, reconoce que no es condición imprescindible para formar parte de la Junta de Gobierno Local disponer de dedicación exclusiva, pero sí resulta necesaria una cierta dedicación a las labores municipales. En este contexto, desea resaltar que el equipo de gobierno del Ayuntamiento de Eibar lo componen las nueve mujeres y hombres del grupo municipal del PSE-EE (PSOE), puesto que cada cual tiene asignadas unas responsabilidades determinadas, y es precisamente, de acuerdo con esas responsabilidades como se ha conformado la Junta de Gobierno Local.

De todas formas, le llama la atención que el número dos de la lista del Partido Nacionalista Vasco sea un hombre cuando el PSE-EE (PSOE) presentó una “lista cremallera” o que el coordinador del grupo municipal de EH Bildu sea un hombre. En cualquier caso, este es un debate que puede llamar la atención, pero hay que ser conscientes de esas circunstancias antes de realizar crítica alguna.

El Pleno se da por enterado.

**3. Propuesta de Alcaldía referente a periodicidad y fecha de celebración de sesiones ordinarias de Pleno.**

**Jarduneko Alkate-Udalburu jaunak** azaldu du proposatzen dela ohiko osoko bilkurak hilaren azken astelehenean egitea, 19:00etan; eta jaieguna izanez gero, hurrengo lanegunean.

El **Sr. Alcalde-Presidente en funciones** explica que se propone que las sesiones plenarias ordinarias se celebren el último lunes de mes a las 19:00 horas; en el caso de resultar festivo se celebrarán el siguiente día hábil.

**Errasti Bernedo jaunak** joan den agintaldiko bi gai ekarri nahi ditu hizpidera, gai-zerrendaren puntu honekin lotuak: batetik, herritarrek Osoko bilkuretan parte hartzeko aukera eta, bestetik, familia-kontziliazioa.

Lehen gaiari dagokionez, herritarren parte-hartzeko aukera zabalduko lukeen ordenantza artean onartu barik dago, antza, apalategiren batean galduta. Hortaz, bere taldeak uste du agintaldi honen aurreneko zeregina udal araudi organikoa aldatzea izan beharko litzatekeela, herritarren parte-hartzean are eta gehiago sakontzeko, esaterako, aktan jasota bertaratzen den jendeak esandakoa edo intereseko gaietan haien interbentzioa erraztuz.

Bestalde, beharrezkoa da ordezkari politikoen familia-kontziliazioa kontuan hartzea, baina baita ohiko bilkuretan lan egiten duten udal langileena ere. Zentzu horretan, ematen du ordu erdi aurreratzeak lehenago amaitzeko aukera emango duela, baina, dena den, ez da nahikoa. Ondorioz,

El **Sr. Errasti Bernedo** desea traer a colación dos asuntos del pasado mandato relacionados con este punto del orden del día: por un lado, la posibilidad de participación de la ciudadanía en los Plenos y, por otro, la conciliación familiar.

En relación con el primero de esos asuntos, la ordenanza que ampliaría las posibilidades de participación de la población aún está sin aprobar, parece que perdida en alguna estantería. Por tanto, su grupo considera que el primer cometido de este nuevo mandato debería ser la reforma del reglamento orgánico municipal con el fin de abrir aún más las puertas a la participación ciudadana, por ejemplo, recogiendo en acta las intervenciones del público o facilitando su intervención en asuntos de interés.

Por otra parte, es necesario abordar la conciliación familiar de los representantes políticos, pero también del personal municipal que presta sus servicios en las sesiones plenarias. En este sentido, el adelanto en media hora se supone que permitiría finalizar antes, pero, de todas formas, no resulta suficiente. En consecuencia, es necesaria una seria

alderdi politiko guztien artean gogoeta sakon bat egin behar da gai honi buruz.

reflexión sobre este asunto entre todos los partidos políticos.

**Mendicute Rodríguez jaunak** esan du Eibarko EAJ-PNV udal taldea prest dagoela Udal Araudi Organikoaren alderdi batzuk aldatzeko, eta pozik azaldu da osoko bilkurak egiteko orduaren inguruan lortu den adostasunagatik, gutxienez, akordioa dago formei dagokienean. Orobat, jakin nahi luke ea akordio hori berori lortuko den Batzordeen ordutegien inguruan, duela lau urte bizi izandako esperientzia txarra dela-eta; izan ere, gobernu-taldearen kasuan bezala, oposizioko kideek ere beren lanbideak udal zereginekin bateratu behar baitituzte.

El **Sr. Mendicute Rodríguez** expresa la disposición del grupo municipal de Eibarko EAJ-PNV a tratar la modificación de algunos aspectos del Reglamento Orgánico Municipal y se felicita por el consenso alcanzado en torno a la hora de celebración de las sesiones plenarias; al menos existe acuerdo en lo que a las formas se refiere. Asimismo, desearía saber si ese mismo acuerdo se va a alcanzar respecto a la convocatoria de las diferentes Comisiones, después de la mala experiencia vivida hace cuatro años, ya que, al igual que en el caso del equipo de gobierno, los miembros de la oposición también deben conciliar sus profesiones con sus tareas municipales.

**Iraola Iriondo jaunak** aitortu du EH Bilduren bozeramaleak mahai gainean jarritako gaiak behin eta berriz azaltzen direla, eta espero du ordu erdi aurreratzeak balioko duela familia eta lana hobeto bateratzeko. Era berean, hitz ematen du, bere taldearen izenean, sakondu egingo dela herritarren parte-hartzea hobetzen. Batzordeak egiteko ordutegia dela-eta, ohartarazten du ez direla bakarrik kontuan hartu behar ordezkari politikoen inguruabar pertsonalak, Udaleko langileen

